

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezeroek, zalantzarik badute, web-orrialde bat izango dugu, eta hor aukera izango dute iruzkin publiko edo pribatuak jartzeko, hau da, iruzkin publiko bat jarri nahi baduzu, edonork erantzun egin ahalko dizu eta horren helburua jendeak guganako ideia edo informazio minimo bat izatea da.

Aldiz, iruzkin pribatu bat jarri nahi baldin baduzu, guk ahalik eta arinen erantzungo dugu, pertsona bat daukagulako web-orrialdeak kontrolatzen.

Dena den, web-orrialdean telefono zenbaki bat izango da eskuragarri eta horra deituz gero, berehala erantzungo dugu. Modu honetan, ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen saiatuko gara bezeroen ezinegonak kontuan izanik, haien zalantzak argitu edota edozein gauza komentatzeko han egongo gara.

Bezeroen iruzkinak kontuan izango ditugu lokala hobetzeko momentuan eta ahal diren aldaketa onuragarri guztiak egiten saiatuko gara bezeroak gustora egotea eta ondo pasatzea nahi dugulako.